

## ZOZKETAREN OINARRIAK

### 1.- Erakunde antolatzailea eta oparia

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, 2 lagunendako EGO Landa Ihesaldirako 15 Esperientzia zozkatuko ditu, sustapen baten barruan.

### 2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

Zozketa 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

### 3.- Sustapenean parte hartzeko legitimazioa

LABORAL Kutxaren epe luzerako aurrezki-aseguru indibidual bat (5 AURREZKIA) kontratatzen duten pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan. Parte-hartzaileek, oparia jasotzeko eskubidea galdegin ahal izateko, egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa.

Ez baditu baldintza horiek betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea.

### 4.- Zozketa

Hamabost sarien zozketa 2017ko azaroaren 10ean egingo da, ausazko sistema informatiko bidez eta zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Gainera, ordezkotako 5 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

Bost egun balioduneko epean saridunen batekin harremanetan jartzerik ez badago Entitatearen datu-basean gordetako bezeroen datuak erabiliz, saria lehen ordezkotaz izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraiki.

### 5.- Opariaren azalpena eta entregatzeko modua

Bi lagunendako **EGO Landa Ihesaldirako 15 Esperientzia** (gaua eta gosaria). Oparia ezin izango da beste sari batekin edo dirutako balioarekin trukatu.

Parte hartzeko epea: 2017ko urriaren 2tik 31ra.

Oparia entregatzeko data: aurrezki-plana kontratatu ondorengo hilabete eta erdia.

Saria [www.egoexperiencias.com](http://www.egoexperiencias.com) webgunean trukatzeko kode bidez emango da.

### 6.- Sariaren fiskalitatea

Saria indarreko legedian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergen alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

### 7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketaren irabazleak saria jasotzeko eskubidea izango badu, LABORAL Kutxari baimena eman beharko dio, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak sustapena ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Ez baditu baldintzak betetzen, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkotari emango zaio.

### 8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, eta sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) orrialdean kontsulta daitezke.